

## Eskoriatzako udalerrian, bide publikoan terrazak eta beste elementu lagungarriak jartzeko ordenantza

### I. KAPITULUA. HELBURUA, EREMUA ETA BALDINTZA OROKORRAK

#### 1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen xedea da jendearentzat irekita dauden ostalaritza establezimenduetako titularrek bide publikoan terraza eta mahai multzoekin egiten duten okupazioa eta erabilera arautzea; betiere, establezimendu horiek irekitzeko lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo, indarrean dagoen araudiaren arabera, jarduera burutzeko gaitzen duen titulua baldin badute.

Bide publikoko okupazio eta aprobetxamendu horiek «erabilera komun berezi»-ko kategoria juridikoa dute, eta, kasu bakoitzean, horiek gauzatzeko, aldez aurreko udal-lizentzia behar da. Lizentzia hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da, kokalekua dela-eta beste baimen batzuk behar izateari kalterik egin gabe.

Aurreko atalaren ondorioetarako honako elementuekin osatutako multzoak hartuko dira terrazatzat eta mahai multzotzat: mahaiak, aulkiak eta ostalaritza-establezimendu baten jarduerarako lagungarriak diren beste zenbait altzari mugikor eta desmuntagarri (eguzkitakoak, estalkiak, kanpoko berogailuak, iragarki-panelak, lorontziak edo antzeko elementuak), eta baita ostalaritza-establezimenduen instalazio osagarriak ere (toldoak, egitura egonkor irekiak eta alboetako).

Ordenantza honetan jasotzen ez den beste edozein elementu jarri nahi bada Udalaren baimena beharko da nahitaez.

#### 2. Artikulua. Eremua.

Ordenantza hau erabilera publikoko espazio guztietan aplikatu daiteke (kaleak, plazak, barruko patioak, espazio libreak, pasabideak, etab.), horien titulartasuna edozein dela ere. Egitatezko egoerak eta indarrean dagoen plangintzak zehaztuko dute erabilera publikoko izaera.

Hala ere, aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, araudi hau ez zaie aplikatuko udal-emakida administratibo baten babesean edo noizbehinkako ospakizunetan eta herriko jai-ekitaldietan, eskumena duen udal-agintaritzak ezarritako egutegiari eta betekizunei lotuta garatzen diren jarduera nagusien instalazio osagarriei.

#### 3. artikulua.- Instalazioaren baldintza orokorrak.

Jabari publikoaren okupazioak ondorengo baldintza orokorrak bete beharko ditu:

- a. Terraza jartzeko hiri-inguruneetan eta espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak errespetatuko dira.
- b. Terraza jartzen denean, gutxienez bi (2) metroko zabalera duen bidea utzi beharko da oinezkoentzat.
- c. Okupatutako eremuak ez du oztopatuko erabilera komunekin espazioetara igarotzea, hala nola lorategietara, oinezkoentzako eremuetara, aparkalekuetara, etab.
- d. Behar izanez gero, berehala erabiltzeko libre utzi beharko dira zerbitzu publikoetako



elementu hauek: ureztatze-ahoak eta ur-hartuneak, estolderia-erregistroak edota zerbitzuak, larrialdi-irteerak eta zerbitzuen erregistro-kutxetak.

- e. Terrazak eta mahai multzoak, gutxienez, 2,00 metrora egon beharko dira hiri altzariengatik, bereziki, jendea jartzeko bankuetatik.
- f. Ezingo da terrazarik jarri bi metro eta laurogeita hamar zentimetro (2,90) baino zabalera txikiagoa duten espaloietan.
- g. Gehienez ere 10 mahai jarri ahal izango dira, bakoitza 4 aulkirekin.
- h. Establezimendu bakoitzaren instalazioa, alboko babesak barne, ezingo da inolaz ere hamabi (12) metro baino luzeagoa izan eraikinaren fatxada batetik edo batzuetatik.
- i. Terrazak lokalaren aurrealde nagusia gainditu ahal izango du, ezarritako mugen barruan, eraikinaren fatxadatik terrazaren instalaziora 3,50 metroko edo gehiagoko distantzia dagoenean.
- j. Debekatuta daude ere terrazak jartzea leku hauen ondoan edo aurrean: oinezkoentzako pasabideak, desgaituentzako aparkalekuak, larrialdietarako irteerak, autobus eta taxien geltokiak, beira, kartoia eta zaborra jasotzeko edukiontzia eta abar.
- k. Era berean, terrazak jartzea debekatu ahal izango da bide-segurtasunagatik, herri-lanengatik edo Udalaren iritziz interes publikokoak diren antzeko beste arrazoi batzuegatik.
- l. Oro har, ezin da terrazarik jarri ezaugarri fisiko bereziengatik edo oinezkoen zirkulazioaren maila edo intentsitateagatik pertsonen segurtasunaren, mugikortasunaren eta irisgarritasunaren ikuspegitik eragozpenak sor daitezkeen espazioetan. Bereziki, eskaera erabakitzerakoan kontuan hartu beharreko inguruabarrak izango dira instalazioak nola eragiten dion oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorriei, baimendutako ibilgailuen pasabideei edo inguruan dauden edozein motatako hiri-altzariei eta bestelako zerbitzuei, eraikin, establezimendu eta zerbitzu publikoetako sarbideei eta horiei dagozkien larrialdi-irteerei, bai eta horien elementu funtzionalak eta seinaleztapenak ondo ikustea galarazten duten ere.
- m. Ondorengo elementuak jartzea debekatzen da: ur, saneamendu, argindar eta gas hornidurarako harguneak.
- n. Debekatuta dago edozein motako salmenta-makinak jartzea.
- o. Debekatuta dago terrazari zerbitzua emateko edozein motatako kiosko, barra edo instalazio osagarri jartzea; beraz, mahaiak establezimenduaren barrutik zerbitzatuko dira.  
Udala, salbuespen gisa, baimendu dezake barra txiki edo antzeko elementuak jartzea establezimenduaren kanpoaldean.
- p. Debekatuta dago billareak, futbolinak, jolas-makinak edo antzeko instalazioak jartzea, baita ikus-entzunezko aparatuak eta soinu-erreproduzitaileak erabiltzea ere.
- q. Altzariak diskretuak izan beharko dute; mahai eta aulkietarako, aluminioa eta kolore neutroko egurra lehenetsiko dira, eta beste material batzuekin konbinatu ahal izango dira, hala nola egur tratatuarekin, biniloarekin eta abarrekin, betiere materialen kalitatea kaltetzen ez bada.

Ezin dira kolore deigarriak edota bizi-bizirik erabili.

Inola ere ezingo dira erabili kolore biziko bereizgarriak dituzten plastikozko publizitate-altzariak, dagokion markakoak.



Hala ere, 20 x 10 cm-tik beherako publizitate-tarteak dituzten altzariak onartu ahal izango dira. Gomazko babesak eraman beharko dituzte hanketan, ahal den neurrian, arrastaka mugitzean sortzen diren zaratak arintzeko eta auzotarrei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Erraz pilatzeko modukoak izango dira, jasota daudenean ahalik eta leku gutxien har dezaten. Bai eskabide berrietan, bai berritzeko eskaeretan, instalatuko diren altzarien ezaugarriak adierazi beharko dira, eta baita altzari-euskarrien gomazko elementuen ezaugarriak ere; azken horrek Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia jaso beharko du.

- r. Terrazaren titularra izango da instalazioen erabilera normalagatik edo anormalagatik, zoladuraren narriaduragatik, istripuengatik, ezbeharrengatik eta abarrengatik eragindako kalte eta galera guztien erantzule, eta dagokion erantzukizun zibila hartuko du bere gain. Horretarako, titularrak erantzukizun zibileko eta suteetako poliza bat izan beharko du, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen arabera.
- s. Debekatuta dago egitura egonkor itxi independenteak instalatzea, karpa, otorduetarako estalpeak edo antzekoak.

## II. KAPITULUA. INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

### 4. artikulua. Kokapena.

Terraza ondorengo lekuetan jarri ahal izango da:

- a. Establezimenduaren fatxadari lotua:
  - 1. Terraza bat etorriko da zerbitzua ematen dion establezimenduaren fatxadarekin edo fatxadekin.
  - 2. Terrazak gutxienez 50 cm-ra egon beharko dira aldameneko lokaletako mehelinetatik.
  - 3. Fatxadaren luzera 12 metrotik beherakoa bada, terrazak bere establezimenduaren fatxadaren luzera gainditu ahal izango du eta ondoko lokalei atxikitu, betiere, lokal horiek erabilerarik ez baldin badute. Kasu horretan, atxiki nahi diren lokalen jabeen adostasuna egiaztatu beharko da.
- b. Fatxadatik bereizita:
  - 1. Terraza jardueratik gehienez 20 metrora instalatu ahal izango da, salbu eta segurtasun-arrazoiengatik ez bada komeni horrela jartzea.
  - 2. Terrazaren instalazioa hiri-inguruneetan eta espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak errespetatuz egingo da.
  - 3. Terraza jartzen denean, gutxienez bi (2) metroko zabalera duen bidea utzi beharko da oinezkoentzat.
- c. Establezimenduaren aurreko aparkalekua
  - 1. Establezimenduaren aurreko espaloiarene zabalera 2,90 m-tik beherakoa den kasuetan, salbuespen gisa, eta kasu horietan bakarrik, establezimenduaren aurreko aparkalekua okupatzeko baimena eman ahal izango da, halakorik balego.
  - 2. Nolanahi ere, Udalak ukatu egin ahal izango du aparkalekuan terraza jartzeko eskaera, zonako aparkaleku-beharrak behar bezala instalita ez daudela uste badu.



3. Aurrealdean aparkalekurik ez dagoen kasuetan, salbuespen gisa, gertuen dauden aparkalekuetan terraza jartzeko baimena eman ahal izango da.
  4. Aparkalekua espaloiaaren azpitik badago, erantsitako oholza baten gainean jarri beharko da terraza, espaloiaaren altuera berean, eta irisgarritasun-baldintzak indarrean dagoen araudiaren arabera bete beharko dira.
  5. Espaloia aldapan badago, terraza-eremua plataforma horizontal baten bidez moldatu ahal izango da, sarbidea mailarik gabe utzita, eta irisgarritasun-baldintzak indarrean dagoen araudiaren arabera bete beharko dira.
  6. Okupazioaren luzera, gutxi gorabehera, establezimenduaren fatxadarena izango da, eta fatxadaren aurrean mugatuta dauden aparkalekuekin bat egingo du. Okupazioaren zeharkako luzerak bat etorri beharko du aparkalekuarenarekin.
  7. Plataforma espaloiaaren ertzaren ondoan jarriko da luzetara, eta galtzadaren ertzetik eta aldameneko plazetatik 20 cm-ra egongo da gutxienez.
  8. Tarimak ura husteko sistema eduki beharko du, eta sistema horrek ezingo du oztopatu urbanizazioan lehendik zegoen bilketa-sistema.
  9. Urbanizazioan dauden hustubideak eta kutxatilik erregistratzeko moduan geratu beharko dira.
  10. Ainguratutako perimetro-babes izango du, okupatutako eremua babesteko. Perimetro-babesaren ordez baranda bat jarri ahal izango da.. Ertzetan islatzaileak jarriko dira.
  11. Bai oholza bera, bai zoladura, garbi-garbi egon beharko dira denbora gutzian. Lizentziaren titularrari dagokio okupatutako azalera garbitzea. Lizentziaren edo baimenaren titularrak dagokion lana egin ez duelako Udal Zerbitzuek egiten badute, exekuzio subsidiarioetarako aurreikusitako prozeduraren bidez likidatuko da.
  12. Terrazarako sarbidea eta irteera espaloitik egingo dira nahitaez.
  13. Alkateak, kirol-, kultura- edo bestelako jarduerak direla-eta, mahaiak eta aulkiak kentzeko agintzen badu, plataforma ere kendu egin beharko da, behar den denborarako, eta hori guztia inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
- d. Eraikinen arkupeetan
1. Oinezkoak joan-etorrian ibili ez ohi diren espazioetan soilik jar daitezke terrazak arkupeetan.
  2. Terrazak gutxienez 1,00 m-ko tartea utzi beharko du hurbilen dagoen eskapearen bi aldeetan.
  3. Modu puntualean eta eguraldi txarraren ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezen, alboetako babesak jartzeko baimena eman ahal izango da 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Babes horiek kendu edo jaso egin beharko dira terraza osatzen duten gainerako elementuekin batera, egun bakoitzaren amaieran.
  4. Terraza establezimenduaren fatxadarekin bat datorren espazioan jarriko da.
  5. Luzetara 12,00 m-tik behera bada eta 10 mahai baino gutxiago badaude, establezimendutik alendu daiteke, gehienez ere, 20,00 m-ra, eta eraikinaren fatxadatik



terrazarako distantzia 3,50 m edo hortik gora izan beharko du.

### **5. artikulua. Azalera okupagarria. Kalkulua.**

Establezimendu bakoitzeko okupa daitekeen gehieneko azalera ordenantza honetan ezarritako parametroak aplikatzearen emaitza izango da, eta perimetro horretan jarri beharko dira baimendutako altzariak.

Establezimendu bakoitzerako baimendutako gehieneko mahai kopurua baimendutako gehieneko azalaren banaketatik ateratzen dena izango da, parametro eta okupazio-dentsitate hauen arabera.

Terrazak honako parametro eta okupazio-dentsitate hauen arabera diseinatuko dira.

Ahal dela, terrazak 60 cm-ko mahaiekin diseinatuko dira, eta aulkien gutxieneko sakonera 70 cm-koa izango da. Parametro horien arabera, m<sup>2</sup>/pertsoneko gutxieneko okupazio-dentsitatea 0,60, 0,87 eta 1,00 m<sup>2</sup>/pertsonekoa izango da, mahai bakoitzeko bi, hiru edo lau laguneko okupazioetarako.

Azalera horretan sartzen dira terrazaren instalazio osagarriak: alboetako babesak...

### **6. artikulua. Alboko babesak.**

Terrazak hartzen duen azalera alboko babesek mugatu ahal izango dute, honako baldintza hauen arabera:

- a. Alboetako babesak ingurune baldintzetara egokitu beharko dira beti, eta haien egokitasuna udal-zerbitzu teknikoen oniritziaren mende egongo da. Hiri-altzariekin nolabaiteko harmonia eta estetika mantendu beharko dute, eta kolore neutroak erabiliko dira (zuriak, kremak, metalizatuak, beltza...).
- b. Alboetako babesek, gainera, bistak garbi ikustea lehenetsiko duen, hau da, herriaren ikuspegia oztopatuko ez duen diseinua izango dute.
- c. Itsuek erraz identifikatu beharko dute.
- d. Ezin izango dute baimendutako okupazio-azalera gaintitu.
- e. Mugikorrek eta erraz desmuntatzeko modukoak izan beharko dute, eta kendu egin beharko dira terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo. Ezin izango dira lurrera ainguratu, baina bai establezimenduaren fatxadari.
- f. 0,90 eta 1,20 m arteko altuera izango dute. Materialak bat etorriko dira terrazaren ingurunearekin eta terrazan jarritako gainerako elementuekin, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko dute. Maneiatzean zaratarik ez sortzeko elementuak izango dituzte.
- g. Haize-baldintzek hala justifikatzen duten kasuetan, alboetako babesak jartzeko baimena eman ahal izango da, eta 1,50 metroraingo altuera izan ahalko dute. Babes horiek gardenak izan beharko dute 90 cm-ko altueratik aurrera. Ezin izango dira lurrera ainguratu, eta, oro har, barrualdean jarritako kontrapisu bat, babesaren egonkortasuna bermatzeko adinako pisukoa, erabiliko da.
- h. Aparkaleku-plazetan kokatutako terrazetan, gehieneko altuera 1,20 m-koa izango da, eta gardenak izan beharko dute 90 cm-ko altueratik aurrera.



- i. Elementu guztiak baimendutako azaleraren barruan instalatu beharko dira, eta terraza muntatu gabe dagoenean kenduta egon beharko dira.
- j. Batzuetan, eta Udal Zerbitzu Teknikoen oniritziarekin, loreontziak erabili ahal izango dira alboko eta aurreko babes gisa.

## **7. artikulua. Egitura egonkor irekiak.**

Terrazak babesteko elementuak dira.

Establezimenduaren fatxadatik bereizita baimentzen diren terrazen kasuan, espaloian ainguratu ahal izango diren egitura egonkorren gaineko oihalez, olanez edo antzeko materialez estali ahal izango da ordenantza honen arabera mugatutako espazioa.

Ez da horrelako egiturarik baimentzen Eskoriatzako Herrigune Historikoan.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Oro har, egitura egonkor irekiak jartzeko baimenak indarrean egongo dira urte natural horretan baimendutako aldiaren. Baimena denboraldi baterako eskatzen bada, egitura bertikal guztiak bide publikotik kendu beharko dira, eta eragindako zoladuran irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dela bermatu beharko da.
- b. Gehieneko neurria terraza okupatzeko baimendutakoa izango da. Dena dela, Udal Zerbitzu Teknikoek hala justifikatzen badute, mugatu ahal izango da.
- c. Gehieneko altuera bat etorriko da pareko eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren beheko aldearen altuerarekin. Altuera minimoa, berriz, 2,20 metrokoa izango da baimendutako okupazio-azaleraren edozein puntutan. Elementu guzti-guztiak baimendutako okupazio-azaleraren barruan egon beharko dira.
- d. Terraza jarrita ez dagoenean, estaldura-elementuak kenduta egon beharko dira edo horiek biltzeko sistema baten bidez bilduta.
- e. Terrazaren alboko babeserako, 6. artikuluan alboko babesei buruz xedatutakoa beteko da.
- f. Terraza edo mahai multzoen erabilera-ordutegitik kanpo bide publikoan utzi nahi diren poste edo bestelako elementuak, ahal den guztietan, inguruko hiri-altzarien edo hiri-ekipamenduaren lerrokaduretan kokatuko dira.
- g. Horrez gain, alboetako babesek diseinu ireki berezia izango dute, eta lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Egiturazko elementuak, ahal dela, altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, galdaketa...), eta pintatuta badaude, pintura oxiroi motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- h. Estalkiaren kolorea (olana, oihala) neutroa izango da, ez deigarria edo bizi-bizia.
- i. Udal-teknikariak baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kasu bakoitzerako. Horretarako, instalazio bat baino gehiago egon daitezkeen eremuak modu globalean eta kasu bakoitzaren berezitasunen arabera aztertuko dira, eta, gutxienez, estalki kolore bera eskatuko zaie guztiei.
- j. Egitura egonkor irekiak ainguratzerik gabe instalatu ahal izango dira, behar bezala bermatzen bada egonkorrak eta mugiezinak direla.



k. Elektrizitatea instalatzea: instalazio elektrikoa baimendu ahal izango da, bai argiztapenerako, bai erradiadoreak erabiltzeko. Instalazio elektrikoa zerbitzua ematen dion establezimenduari konektatuta egongo da. Terrazaren eta instalazio elektrikoaren arteko konexioa ezin bada eraikinean integratu, lurzoru publikoaren azpitik egingo da. Instalazioa honako arau hauen arabera egingo da:

1. Instalazioek Behe-Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan eta Jarraibide Tekniko Osagarrietan ezarritakoa beteko dute puntu guztietan. Baimendutako instalatzaileak dagokion ziurtagiria egin beharko du.
2. Eroaleak ikusten ez diren kanalizazioetan gordeko dira, lur azpian edo eraikinean integratuta.
3. Garajeak edo forjatuaren azpiko beste erabilera batzuk badaude, ezingo da inola ere instalazioa lurperatu, iragazgaiztea kaltetu baitaiteke. Hala ere, baimenduko da baldin eta jabekideen komunitatearen berariazko baimena aurkezten bada.
4. Instalazio elektrikoa Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan zehaztutako aldizkakotasunarekin berrikusi beharko da, eta ikuskapenaren kopia bat eman beharko zaio baimena emateko eskumena duen organoari.
5. Lokaleko terraza edo mahai multzoak baino ez du argiztatu behar, auzokide, oinezko edota ibilgailuak itsutu gabe edo bestelako eragozpenik eragin gabe.
6. Argiak establezimenduaren berezko egiturei lotuko zaizkie, eta inoiz ez zuhaitzei edo hiri-altzarien elementuei, hala nola, bankuei, farolei, seinaleei eta abarri. Egitura horiek segurtasun-elementuak izan beharko dituzte, mekanikoak zein elektrikoak.
7. Kontuan izanik zein altueratan jarri behar diren, instalatutako aparatuak itxiak izango dira, UNE 20324 arauaren arabera, IP-65 babes-maila eduki beharko dute. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta, gainera, zuzeneko eta zeharkako kontaktuen aurkako babes-sistemak izan beharko dituzte, pizteko eta itzaltzeko balio dutenak.
8. Terrazako argiak terraza erabiltzeko ezarritako ordutegian baino ezingo dira piztuta egon.
9. Argiteria-potentzia 1 kW-etik gorakoa bada, kanpo-argiztapeneko instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko erregelamendua onartzen duen azaroaren 14ko 1890/2008 Dekretua eta haren jarraibide tekniko osagarriak, EA-01etik EA-07ra bitartekoak, betetzen dela justifikatu beharko da. Garajeak edo forjatuaren azpiko beste erabilera batzuk badaude, ez da inola ere onartuko egitura ainguratzea, iragazgaiztea kaltetu baitaiteke. Hala ere, baimenduko da baldin eta jabekideen komunitatearen berariazko baimena aurkezten bada.

Ez da baimentzen egitura egonkor irekirik ez fatxadei atxikitako terrazetan, ez eraikinetako ataripe edo arkupeetan, ez larrialdietako irteeren aurrean, ez pasabide, zaborrontzi, elbarrientzako aparkaleku edo autobus-geltokien aurrean.

Udal-agintaritza eskudunak instalazio horietarako eskaera ukatu ahal izango du honako kasu hauetan:

- a. Bide-segurtasunari kalte egin (ikuspena gutxitzea, gidariaren arreta galtzea, etab.) edo oinezkoen trafikoa nabarmen zailtzen badu.



- b. Gunea erabilera anitzekoa delako edota urtean zehar bertan ekitaldi eta jarduera desberdinak egiten direlako, komenigarria ez bada horrelako instalazioak jartzea.
- c. Inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean eragina izan dezakeenean (irteerak...).
- d. Ingururako formalki desegokia denean, inguruarekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaia behar bezala irakurtzea zailtzen duenean.

### **8. artikulua. Terrazei lotutako toldoak.**

Baimendutako okupazio-azaleraren gainean zabaltzen den oihalezko edo olanazko estalkia, fatxadari lotua, itzala egiteko edo euritik babesteko jarria, eta jasotzeko sistema bat duena. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Oro har, gehieneko luzera establezimenduaren fatxadaren zabalera izango da, eta gehieneko hegala bat etorriko da baimendutako okupazioaren zeharkako garapenarekin.
- b. Gehieneko altuera bat etorriko da beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin. Toldoak zabaltzeko eta tolesteko aurreikusitako euskarriak eta gainerako elementuak baino ezin izango dira jarri altuera txikiagoan, betiere, fatxada-lerrotik 0,20 m-ko gehieneko irtengunearekin.
- c. Alboak ezingo dira toldo edo zintzilikatutako beste elementu batzuekin itxi. Terrazaren alboko babeserako, 6. artikuluan alboko babesei buruz xedatutakoa beteko da.
- d. Terraza bide publikoa okupatzen ari denean erabiltzen bada toldoa, gutxieneko altuera 2,20 metrokoa izango da edozein puntutan.
- e. Terraza jarrita ez dagoenean, establezimendu barruan itzala lortzeko erabili ahal izango dira toldoak.
- f. Toldoen koloreak neutroak izango dira, eta ez deigarriak edo bizi-bizikiak.

### **9. artikulua. Eguzkitakoak.**

Eguzkitakoak erraz desmuntatu ahal izango dira, eta terrazako jarduera ixten denean kendu beharko dira egunero, baimenean ezarritako gehieneko epean.

Eguzkitakoaren proiektzioak oinplanoan ezin izango du gainditu terraza instalatzeko baimendutako azaleraren muga.

Eguzkitakoaren elementuek irekita 2,20 metroko altuera librea izan beharko dute gutxienez, eta 3,50 metroko altuera gehienez.

Ez da baimenduko eraikuntzen fatxadei atxikita jartzerik eguzkitakoak eta ezta toldoen ordezkotako gisa ere.

## **III. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

### **10. artikulua. Eskabidea eta erantsitako dokumentazioa.**

Alkatetzari dagokio lizentziak ematea. Baimen bakoitzarekin batera plano edo krokis bat aurkeztu beharko da, behar besteko eskalan, okupatuko den bide publikoaren azalera zehatz-mehatz mugatuz.

Interes orokorreko arrazoiek hala eskatzen dutelako, eta jabari publikoko espazioa eta erabilera publikoko eremua mugatuak direlako, beharrezkoa da lizentzia-kopurua eta horien indarraldia





mugatzea.

Lizentziak kasu bakoitzean eskatzen den aldirako emango dira, eta urte natural horretan baimendutako aldian egongo dira indarrean, Ordenantza honetan xedatutakoaren inguruabarrak kontuan hartuta.

Lizentziaren titularra izateko, jabari publikoa okupatzeari dagozkion ordainarazpenak ordaindu beharko dira, kasuan kasuko ordenantza fiskaletan aurreikusitakoak.

Interesdunak dagokion lizentzia-eskaera aurkeztu beharko dio Udalari, Udalak horretarako prestatutako inprimakia erabiliz.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Ondoko establezimenduen titularren baimena, 4.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan.
- b. Lokalaren kokapen-planoa, 1:200 eskalan egina edo krokisa, fatxadaren luzera eta instalazioak hartuko duen azaleraren xehetasun mugatuak adierazita.
- c. Instalatu beharreko altzarien eta elementu osagarri guztien definizioa, behar den dokumentazio guztia barne (argazkiak, katalogoak...).
- d. Egitura egonkor irekiko instalazioen kasuan, teknikari eskudunak sinatutako dokumentazioa, honako hauek jasotzen dituenak:
  1. Instalatu beharreko egituraren deskribapena honako ezaugarriak adieraziz: neurriak, materialak, ainguraketa mota eta kopurua, ezaugarri estetikoak eta abar.
  2. Instalatu beharreko egituraren oinplanoaren, aurretiko bistaren eta sekzioen planoak.
  3. Instalazioaren kokalekuaren planoak; bertan, hala badagokio, zerbitzu publikoetan (ura, saneamendua, argiteria) izan ditzakeen eraginak adieraziko dira.
  4. Indarrean dagoen araudiaren arabera kontuan hartu beharreko kargen kalkulua (berezko pisua, erabilera-gainkarga, haizearen eragina, etab.). Behar den ainguratze-sistema kontuan hartu beharko da.
  5. Instalazioaren aurrekontua.
  6. Baimen-aldian instalazioa estaliko duen erantzukizun zibileko poliza.
  7. Jabekideen komunitatearen baimena, egitura egonkor irekia garajearen edo beste erabilera baten gainean dagoen zoladuran ainguratuz gero.
  8. Lizentzia eman eta egitura instalatu ondoren, muntaiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatuta, instalazioaren segurtasunaren eta sendotasunaren berri jasotzen duena.
- e. Alboetako babesak: Materialen eta dimentsioen deskribapena, katalogoak eta/edo argazkiak.
- f. Aparkalekuetako oholtzak: oinplanoa, altxaerak eta xehetasunak. Erregistroen xehetasuna eta euri-uren hustuketa berrmatutako duen konponbidea.
- g. Instalazio elektrikoa izanez gero, II. kapituluaren adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatuta beharko da.  
Instalazioaren planoekin, deskribapenarekin eta ezaugarriekin osatuko da.  
Argiteria-potentzia 1 kW-etik gorakoa bada, kanpo-argitapeneko instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko erregelamendua onartzen duen azaroaren 14ko 1890/2008



Dekretua eta haren jarraibide tekniko osagarriak, EA-01etik EA-07ra bitartekoak, betetzen dela justifikatu beharko da.

Instalazio elektrikoa zoladuraren azpian lurperatuz gero, jabekideen komunitatearen baimena garajeak edo forjatuaren azpiko beste erabilera batzuk daudenean.

Instalazioa amaitutakoan, honako hauek aurkeztu beharko dira:

Instalatzailer baimenduaren ziurtagiria edo, hala badagokio, baimendutako kontrol erakunde batek egindako ikuskapenaren ziurtagiria.

Argiztapen-instalazioaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (> 1kW).

Lizentzia lehenago emandako baldintza beretan berri nahi izanez gero, berritzeko eskaera aurkeztu beharko da, eta horrekin batera, beharrezkoa den kasuetan, ondoko establezimenduen adostasuna eguneratuta.

### **11. artikulua. Txostenak eta ebazpena.**

Eskaera egin ondoren aurreko artikuluetan eskatu bezala, Udaltzaingoaren ikuskapen-bisita egingo da, eskatzailearekin harremanetan jarriko da terrazaren neurriak eta kokalekua zehazteko, eta dagozkion txosten teknikoak egin ondoren, Udalak hiru hilabeteko epean erabakiko du.

Txosten teknikoak, hala badagokio, baimendutako instalazioaren baldintza zehatzak (kokapena, okupatu beharreko azalera, etab.) plano batean jasoko dituen dokumentu edo fitxa bat izango du.

Hiru hilabeteko epean berriazko erabakirik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

### **12. artikulua. Lizentziaren baldintzak.**

Lizentzia beti emantzat joko da, jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe. Ezin izango du erabili titularrak bere jardunean eragindako erantzukizun zibilari edo penalari uko egiteko edo erantzukizunak murrizteko, eta ez du salbuesten, hala badagokio, beste baimen batzuk lortzeko beharretik.

Lizentziaren agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira.

Udalak baldintza horien laburpen-fitxa bat egingo du, eta baimenaren titularrak establezimenduan jarri beharko du, ikusteko moduan. Fitxa horretan, gutxienez, kokapen-plano bat jasoko da. Plano horretan, honako hauek jasoko dira: okupatzeko baimendutako azalera, mahai altuen edo baxuen kopurua eta modulu mota, aulkiak edo baimentzen diren elementuak, eta oinezkoak igarotzeko pasabide libreak. Halaber, udal-dokumentu horretan baimendutako ordutegia eta denboraldia adieraziko dira.

Lizentzia prekarioan emango da beti, eta baimendutako instalazio guztiak edo batzuk bide publikotik kentzeko agindu ahal izango du Alkatetzak, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta trafikiko, urbanizazio, obra edo kultura-, kirol-jarduera edo interes orokorreko beste edozein arrazoiengatik hala egitea komeni bada.

Lizentziaren titularrak konpondu egin beharko ditu instalazioaren ondorioz bide publikoan eragindako kalte guztiak.

Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren edo erabilera publikoko espazioen okupaziorako aurreikusita dauden ordainarazpenak ordaindu beharko ditu lizentziaren titularrak.

Ordainarazpen horiek hilabeteko epean ordaindu beharko ditu, lizentzia ematen zaiola jakinarazteko idatzia jasotzen duenetik zenbatzen hasita.



Epe hori bukatutakoan ordainketa egin gabe baldin badauka, emandako baimena ondorio guztietarako iraungita geratuko da eta egindako likidazioa automatikoki baliogabetuta. Beraz, eta hala badagokio, beste lizentzia bat eskatu beharko du interesdunak jabari publikoa edo erabilera publikoko espazioa okupatu ahal izateko.

Era berean, baimena lortzeko, titularrak egunean izan beharko du jarduerarekin zerikusia duen Udalaren aldeko edozein eskubide. Arrazoi horregatik baimena ukatzeko, beharrezkoa izango da Udalaren aldeko eskubidea deklaritzen duen administrazio-espeditentea amaituta egotea administrazio-bideko ebazpen irmoarekin.

Lizentziaren onuradunak ezin izango du inolaz ere terraza jarri Udalak onartutako ordainarazpenak ordaindu aurretik.

Okupazioak ezin izango du, inola ere, Udalak baimendutako azalera gainditu, eta elementu guztiak lizentziari erantsitako planoan adierazitako mugaketaren barruan geratu beharko dira. Debehatuta dago kanpoko barrak, makinak edo antzekoak instalatzea, salbuespenezko egoeretarako baimen berezirik izan ezean.

Loreontziak, eguzkitakoen euskarriak, altzariak eta instalazioak, oro har, kontserbazio-egoera onean mantendu beharko dira beti.

Lurzoruan ainguratzeko sistemak erabili ahal izango dira egitura egonkor irekietarako eta aparkalekuetan kokatutako terrazak perimetroan babesteko. Terraza-lizentziaren eskaeran, egin nahi diren ainguratze-kopurua eta ainguratze-sistema zehaztu beharko dira. Nolanahi ere, egituren segurtasuna eta sendotasuna bermatu beharko dira. Ainguratze-sistemari dagokionez, zuloa espaloien arrasean itxi beharko da, edo sistema hori inolako hirigintza-oztoporik ez eragiteko moduan jarri, baimendutako ordutegiaren amaieran terraza kentzen denean.

Terraza-lizentziaren titularrak, lizentziak indarra galdu ondoren, kaltetutako zoladura ordeztu beharko du. Lizentziaren titulartasuna aldatzen bada, edo lizentzia amaitu ondoren, beste titular batek ainguraketa horiek erabiltzen jarraitu nahi badu, lizentzia berria eskatzean berriaz adierazi beharko du lizentzia bukatzen denean bere gain hartuko duela kaltetutako baldosak ordeztuko erantzukizuna.

Establezimenduak bere kategoriaren eta udal ordenantzetan ezarritakoaren arabera baimenduta dituen edari eta artikuluak bakarrik zerbitzatu ahalko ditu terrazan.

Lizentziaren titularrak gainerako bizilagunen lasaitasunerako eskubidea errespetatzen dela zainduko du eta, beraz, ez du eskandalu, liskar eta zaratarik onartuko, batez ere 22:00etatik aurrera eta 08:00etatik 09:00etara.

Baimenaren titularra behartuta dago okupatutako eremua garbi eta higiene-baldintza egokietan edukitzera egun osoan zehar, aldian-aldian ekortze- eta garbiketa-lanak eginez.

Lanaldi bakoitzaren amaieran, altzarien elementuak establezimendu barrura eraman beharko dira. Establezimenduaren barruan altzariak lagatzeko leku nahikorik ez badago, udal-zerbitzu teknikoekin adostu beharko da, eta dagokion lizentzian jaso beharko da zer kokapen zehatz baimenduko den. Beraz, baimena emango da altzariak kanpoaldean jasota gera daitezzen, baldin eta auzotarrei kalterik egiten ez badiete eta ibilgetuta badaude, terrazaren ordutegitik kanpo istripuak edo baimendu gabeko erabilerak saihesteko.

Era berean, lanaldia amaitzean, terrazaren espazioa garbiketa-baldintza egokietan utzi beharko da, eta, horretarako, hondakinak bildu eta dagozkien edukiontzietara botu beharko dira.



Terraza ixten denetik gehienez ordu erdiko epean altzariak kendu eta espazioa garbitu beharko da.

Agintari eskudunak eskatutakoan, titularrek udal-baimena erakutsi beharko dute.

### **13. artikulua. Indarraldia eta berritzea.**

Erabilera publikoko bideetan (kaleak, plazak, espazio libreak, pasabideak, etab.) terrazak jartzeko emandako lizentziek, hasiera batean, urtebeteko iraupena izango dute gehienez ere, eta indarrean egongo dira urte natural horretan baimendutako aldian. Lizentzia horiek berritu ahal izango dira, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, betiere, beste araudi batean aurreikusitako mugak alde batera utzi gabe.

Indarraldia amaitutakoan, lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, dagokion establezimenduaren titularrak, instalazio osoa kendu beharko du, bide publikoa lehengo egoerara itzuliz, salbu eta dagokion lizentzia berritzea tramitatzen bada.

Lizentziaren onuradunek hasierako baimenaren edozein alderdi aldatu nahi izanez gero (irekitzeko lizentziaren, aurretiazko jakinarazpenaren edo jarduera burutzeko gaitzen duen baimenaren titularra aldatzea, edo okupazioaren azalera, altzariak, kokapena eta abar aldatzea), lizentzia eskatu beharko dute berriro ere eta, hala badagokio, baita lizentziaren transmisioaren berri eman ere.

Lizentzia eman ondoren, lehengo baldintza beretan berritu nahi den bakoitzean, interesdunak beste eskabide bat aurkeztu beharko du, 11. artikuluekin bat etorritz.

### **14. artikulua. Funtzionamendu ordutegia.**

Ordutegien araubidea finkatzea alkatearen eskumena izango da.

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua beteko da, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzen duen araudia onartzen duena. Ezarritako ordutegiak honako hauek izango dira:

a. Terrazak jartzea:

Mahaiak eta aulkiak ezingo dira goizeko 8:00ak arte jarri, salbuespenezko baimenik izan ezean.

b. Kentzea:

Ekainaren 1etik irailaren 30era:

Igandetik ostegunera: 24:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 01:00etan. Urteko gainerako egunak:

Igandetik ostegunera: 23:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 00:00etan.

Unean-unean ezarrita dagoen ordutegi-araubidea edozein dela ere, Alkatezaren dekretu bidez, eta salbuespen modura, mahai eta aulkiak jasotzeko ordutegi malguagoak baimendu ahalko dira sanpedroetako, inauterietako eta auzoetako jaietako (auzoko establezimenduei bakarrik aplikagarria) jaiegun eta bezperetan, eta esanahi bereziko beste data batzuetan. Kasu horietan, ordutegia 17/2019 Dekretuan ordutegi-talde bakoitzerako ezarritako itxiera-ordutegia baino ordubete lehenagora arte luzatu ahal izango da, baina inola ere ezingo dira goizeko ordu biak



gainditu.

Dena dela, mahaiak eta aulkiak jasotzeko ezarritako ordutegia alde batera utzita, establezimenduek Barne Sailak ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dituzte, beren kategoriaren arabera, eta ezingo dituzte terrazak jarrita eduki establezimenduari dagokion itxiera-ordutik aurrera. Era berean, ezin izango dituzte Udalaren garbiketa lanak oztopatu.

Terrazarako ezarritako ordutegia amaitutakoan, instalazioan ezin izango da bezerorik geratu. Ordu horietan, instalazioa kentzeko eta garbitzeko zereginetan ari diren langileak soilik egon ahal izango dira, eta nolana ere, zaratarik sortu gabe jaso beharko dituzte altzari guzti-guztiak.

Jardueraren hasiera ez badator bat terrazaren irekiera ordutegiarekin, udal zerbitzu teknikoek oniritzia eman ondoren, kanpora atera ahal izango dira hura osatzen duten elementuak, betiere, auzotarren lasaitasunerako eskubidea errespetatuz.

Bizilagunak behin eta berriz kexatzen badira terrazaren erabilerak sortutako eragozpenengatik, egoera aztertu eta Alkatetzak, egoki baderitzo, itxiera-ordutegia aldi baterako edo behin betiko mugatu ahalko du, eta hala badagokio, baita lizentzia baliogabetu eta instalazioa kentzera behartu ere.

#### **15. artikulua. Okupatu daitekeen azaleraren mugaketa.**

Lizentzia lortu ondoren, eta lizentziaren titularra tokian bertan dela, baimendutako okupazioaren gehieneko azaleraren mugak argi eta zehatz adieraziko dizkio Udalak.

Mugaketa hori lurzorua gainean egingo da, udal-zerbitzu teknikoek zehaztutako sistemaren bidez, eta inola ere ezingo da aldatu edo kendu haren baimenik gabe.

Ezarritako mugaketa-sistemak zoladura kaltetzen badu, baimena amaitu eta gero, lizentziaren titularra arduratuko da zoladura lehen zegoen bezala uzteaz.

#### **16. artikulua. Hizkuntza-betebeharrak.**

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak (menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharra, arbetetako oharra...) euskaraz idatziko dira (beste hizkuntza batzuetan ere idatzi daitezke).

